



Dinosaurioak aurkitzeko premia

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Guretzat, *dinosaurio* izen arrunta da. Eta oso arrunta da izen horren atzean dauden kontzeptua, alegia, eboluzioan noizbait arrakasta handia izan zuten narrasti erraldoen multzo bat. Baina duela 200 urte, ez ziren ez izena, ez kontzeptua existitzen. Fosilak jasotzeko zaletasuna, ordea, bazegoen zenbait tokitan.

Ingalaterrako hegoaldea zen toki horietako bat. Eta, hain zuzen ere, hango fosilzaleek aurkitu zituzten lehen dinosaurioak; 1811n, Mary Anning izeneko neska batek iktiosaurio baten hezurdura oso bat aurkitu zuen lehen aldiz. Ez zekien zer zen, krokodilo zahar baten hezurdura fosildutzat hartu zuen. Beste inork ere ez zekien zer zen, baina aurkikuntza horrek eta hurrengo urteetan egindako beste batzuek geologoen interesa piztu zuen. Lurraren adina orduan ari ziren ikeritzen, eta fosilak elementu garrantzitsuak ziren ikerketa horretan. Zoologoen teoriak ere astindu zituzten dinosaurioen fosilek.

Liburu honek jende horren guztiaren historia kontatzen du, fosilzaleena geologoena eta zoologoena. Dinosaurioen aztarnak aurkitzeko eta ia harrapatzeko lasterketa bat jarri zen martxan, eta, horrekin batera, fosilen interpretazioa egitekoa ere bai.

Izen handi asko azaltzen dira dinosaurioen fosilei lotuta. William Buckland apaizak, esate

baterako, dinosaurioen aurkikuntza Bibliaren interpretaziora egokitu nahi izan zuen; James Parkinsonek (Parkinsonen gaixotasuna lehen aldiz deskribatu zuen medikua eta Geological Society erakundearen sortzailetako bat) fosilak noizkoak ziren jakiteko erreferentzia-sistema zehazteko lanean hartu zuen parte; Zoologiako aditu handienetako bat, Georges Cuvier frantsesa, ingelesan aurkikuntzen eta espekulazioen epaile izan zen; eta beste adibide asko dago.

Nolanahi ere, aipagarrienak bi izen izan ziren: Gideon Mantell eta Richard Owen. Biak izan ziren adituak dinosaurioen hezurren ikerketan, eta zientziaren historian izan den norgehiagoka ezaunenetako batean aritu ziren. Gaur egun, Oweni ematen zaio garrantzi gehien, hura izan baitzen *dinosaurio* hitza asmatu eta zabaldu zuena.

Ezin ahaztu beste izen handi bat: Charles Darwin. Eboluzioaren aitak garrantzia du kontakizun honetan, ez dinosaurioen fosilak bilatzeagatik edo aztertzeagatik, baizik eta haiek ulertzeko teoria sendo bat garatu zuelako. Hala ere, Darwinek beldurra zion, adibidez, Owenen iritziari. Eta bazuen horretarako arrazoirik; hasieran, Owen Darwinen aldekoa bazen ere, ezin zituen onartu teoriak zituen azken ondorioak. Eta *dinosaurio* hitzaren asmatzaileak indar handia zuen XIX. mendeko zientzian. ●



Los Cazadores de Dinosaurios

Deborah Cadbury

Ediciones Península

224 x 150 mm

ISBN: 84-8307-518-0

Jatorrizko izenburua:
The Dinosaur Hunters

Zuzenketa: Otsaileko liburutegian (272 zenbakian) *Gizonaren neurketa okerra* Elhuyar Fundazioak argitaratu duela esan genuen. Ez da zuzena; Klasikoak argitaletxeak argitaratu du.